

ILLERRI-DONE EDO KANPO SANTUETAKO OBIZDE TA GAIÑIZKIRA BATZUEK

Miseremini mei, miseremini mei, saltem vos, amici mei: (Job 19,21.)

Erruki beintzat zuek,
Erruki, aiskideak;
Nere modura dira
Zuen ondoreak.



Memorare novissima tua. (Ecles. 7,40.)

Astalka gure-billan
Dator eriotza;
Ondoren eman bear
Kontuba zorrotza:
Anima garbitzeko
Ez iduki lotsa;
Eman bertatik oso
Jaunari biyotza.



Mortui resurgent incorrupti. (Ad. Cor. I. 15,52.)

Ill-diranak illezkorrik
Berriz jaikiko dira,
Zorionez jantzitzeko,
Obra onak badira.



Justus autem, si morte præoccupatus fuerit, in refrigerio erit. (Sap. 47.)

Uste-gabean ill-eta-ere
 Justuba dana munduan,
 Leku-onera irichiko da
 Eriotzako orduan.



In te, Domine, speravi, non confundar in æternum (Psal. 70,1)

Zugan izango det, Jauna,
 Ichodomen guzia;
 Ez nazu iñoz lagako
 Baztertu ta utzia.



Expecto donec veniat immutatio mea (Job. 14,14)

Egongo naiz pozikan ichodon onian,
 Jaunak ni piztu eta aldatu artian.



*Scio enim quod Redemptor meus vivit, et in novissimo die de terra
 surrecturus sum. (Job. 19,25.)*

Badakit ondo; bizi da Jesus
 Nere Erosle Jainkua;
 Azken-egunez gorputz au bera
 Izan bear du justua.



Beati mortui, qui in Domine moriuntur. (Apoc. 14,13.)

Zorioneko beti zeruko glorian
 Iltzen diranak emen Jaunaren grazian.



Thesaurizate autem vobis thesauros in celo. (Math. 6,20)

Bada biotza degu, nun dan gordairuba,
 Alegiñ irabazten munduan zeruba.



Memento homo, quia pulvis es, et in pulverem reverteris. (Missal Rom.)

Oroitu zaite, ni bezelāse
 Auts biurtuko zerala:
 Eska nigatik, eta anima
 Salbatzen egíñ, eiñala.



Fidelium animœ per misericordiam Dei requiescant in pace. (Off. Def.^m)

Kristau leyalen anima onak
Pake-atsegīñ lekura,
Jaungoikoaren erruki aundiz
Dijoazela zerura.



Inter sanctos sorsillorum est. (Sap.5,5.)

Bizi diranak mundu onetan
Zuzen Jainkoa serbitzen,
Zorioneko izango dira
Santu-arteau biziutzen.



Ibit homo in domum æternitatis sua. (Eccle. 12, 5.)

Uste guchienean
Bera edo gora,
Gizona joango da
Eche betikora.



Non enim habemus hic manentem civitatem, sed futuram inquirimus.

(Hebr. 13, 14.)

Iraunkor dan erririk
Emen ez daukagu;
Betiko ondorengoa
Billa bear degu.



Dum sumus in corpore, peregrinamur á Domino. (Cor. II 5, 6.)

Sinista jakin, beti zerala
Erbestekoa munduan,
Gure betiko erriya degu
Bakar-bakarrik zeruan.



Non sunt dignæ passiones hujus temporis ad futuram gloriam.

(M. Rom. 8,18.)

Meritu asko irabazi det
Miñ askorekiñ munduan;
¡Zeñ atsegīñ ta zorioneko
Nagoan orainñ-zeruan!....



Lore eder baten eran,
 Alda naiz zerura;
 Atozte zuek-ere
 Ni nagon lekura.

(Aur baten obian).



¡Zeñ ondo zauden, aurcho maitea,
 Aingerubakin zeruban!
 Erreguzazu gaudenogatik
 Negartokiyana munduban.

(Aur baten obian).



Birjiña amaren alaba ona
 Izandu nitzan munduan;
 Zorioneko naiz ni betiko
 Berekin oraiñ zeruan.

(Maria-ren alaba baten obian).



Dissolvi et esse cum Christo, multo magis melius. (Ad. Phil. 1,23.)

¡O zeñ atsegin, ondo bizirik
 Gorputz illkorra uztea,
 Eta Kristoren lagun betiko
 Zeru goyetan jartea!...



Qua hora non putatis, Filius hominis veniet. (Luc. 12,40. Mat. 24,44.)

Usterik guchienean,
 Jauna, bai, zuengana
 Dator zuzen juzgatzen
 Egin dezuben dana.

J. IGNACIO ARANA-KOAK.

